

Salgaiak hegan


Iluntzeko zortziak. Gautu du Gasteizko aireportuan. Askok eta askok lanaldia bukatu duten garaian hasten dute berea beste zenbaitek. DHLko langileek, esate baterako. Salgaiak garraiatzen aritzen da enpresa hori, eta Gasteizen dauka aire-garraioko gune nagusia. Espainia, Portugal eta Frantzia hegoaldeko iristen diren salgaiak txukun sailkatu ondoren hainbat lekutara banatzen dituzte.

Egunean 16.000 pakete ere bai.

Furgoneta andana bat iritsi da enpresaren nabera, eta hantxe utzi du bakoitzak bere zama, Asturiastik, Kantabriatik, Euskal Herriko hainbat lekutatik... ekarria. Gauza guztiak ongi kalkulatu eta neurtu behar dira, akatsik txikiena ere garesti ordaintzen baita esportazioez ari garenean: zenbait minututako atzerapenak galera ekonomiko handiak eragin ditzake. Paketeak hartu, eta arraboleraino eramaten dituzte orga-gidariak; han, Guardia Zibila begira dagoela, X izpien eskanerretik pasaratzen dituzte banan-banan. Bidaiarien hegaldietan bezala, salgaientan ere oso-oso zorrotz zaintzen dute segurtasuna. Lanegun bakarrean 16.000 pakete jartzen dituzte helmugarako bidean: eskanerretik pasatu, zinta batean bidali eta hainbat langilek eskuz sailkatzen dituzte, helmugaren arabera, bakoitza bere edukiontzian. Diseinu bereziko ontziak izaten dira, hegazkinen fuselajera ongi egokitu daitezten. Edukiontzietan garraiatzea seguruagoa, eraginkorragoa eta merkeagoa da.



Zama, doi-doi orekatua. Aldi berean, nabearen goiko solairuan, langileak erabat kontzentratuak ari dira. Adi-adi begiratzen diote pantaila bati: luze gabe bost hegazkin lurreratuko dira Gasteizko aireportuan, Santiagotik, Alacantetik, Valentziatik, Sevillatik eta Portotik datozenak; beste pantaila batean, baskula eta lurreratze gunerako sarbidea ageri zaizkie. Meteorologia-gorabeherak zaindu beharra dago, hegazkinen zamatze-erriak antolatu eta edukiontzia pisatu. Kontuz egin beharreko lana da. Hegazkinaren zati bakoitzak pisu jakinari eusteko gaitasuna dauka, eta funtsezkoa da zama doi-doi orekatzea, edozein desorekak istripu larria eragin dezake eta. Gainera, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: adibidez, hegazkinak zenbait erregai izaten duen hegaldiaren une bakoitzean.



Kronometroari begira. Hegazkinak txandan-txandan lurreratzen dira. Santiagotik eta Alacantetik datozenak heldu orduko, zamak deskargatzeari ekin diote, altxatzen den plataforma bat erabiliz, eta ibilgailu bereziz bete da inguru hura guztia; horiek garraiatuko dituzte salgaiak. Lurreratuko diren hurrenak Valentziatik, Sevillatik eta Portotik datozen Boeing-ak dira. 45 minutu baino ez dituzte egingo lurrean, eta tarte horixe izango dute DHLko langileek erregaiz hornitu eta zamalanak egiteko. Dena behar bezala dagoenean, hurrenez hurren, Erresuma Batua, Belgikara eta Alemaniara bidean jarriko dira hiru hegazkinak. //